

GIL 55 Lapuebla de Labarcako ibai-serieak



Miozenoko hareharrien azaleratzearen ikuspegia Ebro ibaiko zubitik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 29' 39,89" N

Long.: 2° 33' 59,97" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 535.609,17 m

Y: 4.704.763,69 m



Nola iritsi

Lapuebla de Labarcatik, hartu A-4202 errepidea, Ebro ibaiaren ezkerrealdearekiko paralelo doana. Azaleratzea herriaren kanpoaldean dago, errepidearen ezkerreko ezpondan.



Miozenoko hareharrien itxura aparkalekutik.



Dilista-formako kanalen xehetasuna; haietan antolatzen dira hareharri-metakinak.

GILaren deskribapen laburra

Ebro ibaiaren egungo ebakiak agerian uzten du 30 bat metro lodiko sekzio hau, Haroko Miozenoko formazio kontinentalaren behealdean. Azalratzea material txandakatu hauetaz eratua dago: hareharri, buztin eta lohi okre-kolorekoak eta horixkak.

Oro har, hareharriak kanal ez oso lodi eta ez oso zabaletan agertzen dira, baina, bazuetan, 10 metrotik gorako lodiera duten paleokanal handiak ere aurkitzen dira.

Uholde-lautada lohitsu zabaletan eratutako metakinak dira, garai arruntetan ura eramango zuten kanal txikiz zeharkatuak. Paleokanal handiak emari egonkor eta nagusien ubideak izango ziren, eta, uholde-garaietan, gainezka eginik, inguruko lautadak estali eta kanal txikiak beteko zituzten.

Behatzeko punturik onena

In situ, errepidean.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 30, GIL 80, GIL 53.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 72.



Tamaina handiko kanal bat.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- EEEn mapak.